

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako goi-kargudunei departamentuko oinarrizko ildoak aurkeztu dizkie

Iribas kontseilaria zuzendari nagusiekin eta zerbitzuetako zuzendariekin elkartu da

Jueves, 01 de septiembre de 2011

José Iribas Sánchez de Boado Hezkuntza kontseilariak bilera egin du gaur goizean departamentua osatzen duten zuzendari nagusiekin, hezkuntzaren alorrean Nafarroako Gobernuaren ildo estrategikoen berri emateko eta [departamentuko antolaketaren egitura](#) aurkezteko. Bileran, Maximino Gómez Euskarabideko zuzendariak, Ignacio Iriarte idazkari nagusi teknikoak eta Hezkuntza Departamentuko egitura osatzen duten zerbitzuetako hamar zuzendariak ere parte hartu dute.

Iribasek taldeko kideei gogorarazi die "haien egitekoa ondo burutuz gero, horrek Nafarroako ikasleengan eragina izango duela". "Foru Erkidegoko haur guztien hezkuntza guk ondo egiten ditugun gauzen arabera da", esan du.

Bilerak amaiera eman dio kontseilariak agintean egin dituen lehen bi hileetako bileren zikloari. Guztira 50 batzar eta ekitaldi publiko izan ditu, barruan egindako bilerez gain.

Iribasek, uztailaren 6an, Bigarren Hezkuntzako Zuzendarien Bilera Nagusiko kideei egin zien harrera. Honako hauekin ere elkartu da: alkateak eta tokiko erakundeak, sindikatuak, mahai sektorialak, Arartekoa, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Eskola Kontseilua, Gurasoen Mahaia eta NUPeko Gizarte Kontseilua..

Bestalde, denbora horretan zehar Nafarroako hainbat herritara joan da, besteak beste, Tuteran (LHko ikasleei sariak banatu zizkien), Tafalla, Cadreita (0-3 urte arteko haurren eskola bat ireki zuen), Luzaide, Fustiñana, Arguedas, Noain edo Lerate, eta zenbait hedabiderekin elkarrizketak egin ditu. Gainera, joan den astean autonomia erkidego guztietako LHko irakasleentzako Energia Berriztagarrien arloko Eguneratze Teknikorako ikastaro bat ireki zuen. Bihar arte izango da Iruñean.

Horrez gain, adierazi behar da, kontseilariak gutun bana bidali diela Nafarroan lanean ari diren irakasleei.